elizalde
HERRI ESKOLA

# INFORMAZIO ORRIA

Zenbakia: 22 Astea: 2019-2-15

## IHOTE ETA KARROXARAKO DANTZA ENTSEGUAK



Egutegiari begiratuz gero, Ihoteak laster izango ditugu, otsailaren 22, 23 eta 24ko asteburuan hain zuzen ere. Ihoteak, Oiartzungo inauteri jaia da eta guk, herriko eragile bezala, bertan parte hartze handia dugu. Horregatik, prestaketa ahalik eta azkarren hasi behar dugu. Berriak diren familientzat, Zuzendaritzako bulegoan, mozorroa egiteko zaku oihala, biesak eta kriskitinak salgai daude, 6 eurotan ikasleentzat eta 8 eurotan helduentzat. Zaku mozorroa nola egiten den jakin beharko bazenute, ostiralero egingo diren dantza entseguetan (jantokian) hainbat guraso esku bat botatzeko egongo dira. Beraz, 2019ko otsailak 1, otsailak 8 eta otsailak 15ean, arratsaldeko 16:45etatik aurrera bertan elkar zaitezkete.

## JANGELAKO PLATERAK

Azken abenduak 24ean, herrian zehar abesten ibili ondoren, eskolako jantokian hamaiketako ederra ospatu genuen. Hainbat familiek, tortillak eta bizkotxoak ekarri zenituzten. Ekarritako platera batzuk oraindik ez dira jasoak izan, horregatik, aukera duzuenean, hurbil zaitezte idazkaritzara plater horiek jasotzeko.

## KARROXA

Hurrengo otsailak 24, igandea, gure karroxa ospatuko dugu denon artean. Gure haurrek eskolan ikasi dituzten dantzak herriko plazan dantzatzeko aukera ezin hobea izango dute. Bertso eskolakoen ekitaldia, alboka eta dultzainak, euskal dantzak eta plazan amaiera borobila, denok dantzara!! Ezin ahaztu, indarrak berreskuratzeko hamaiketakoa 6. mailako gurasoen eskutik. Sorginen eta Intxixuen bisita izango al dugu? Animatu ikustera eta parte hartzera, hartu zakuak eta igandean karroxara! Hasiera goizeko 10:30etan izango da.

## ENSAYOS PARA LOS IHOTES Y LA KARROXA.



Mirando el calendario, dentro de poco, celebraremos los Ihotes, el fin de semana del 22, 23 y 24 de febrero. Son los carnavales de Oiartzun y la escuela, como agente activo en el pueblo, tenemos un gran participación. Por ello, debemos comenzar con los preparativos. Para las familias que son nuevas en la comunidad escolar, está a la venta la tela de saco para el alumnado a 6 euros y para los adultos a 8 euros. En caso de que necesitaráis ayuda en la confección del traje, habrá algunas familias en los ensayos de los bailes de los viernes por la tarde en el comedor, a partir de las 16:45 horas.

## PLATOS DEL COMEDOR

El 24 de diciembre, cantamos villancicos y después hicimos un gran hamaiketako en el comedor. Muchas familias trajeron tortilas y bizcochos hechos en casa. Algunos de los platos utilizados todavía siguen en la escuela, cuando tengáis la posibilidad pasad por secretaría para poder recogerlos.

## KARROXA

El próximo 24 de febrero, domingo, celebraremos la Karroxa. Nuestro alumnado bailará en la plaza del pueblo las danzas aprendidas en la escuela. Sonarán la alboka y dultzaina, los bertsolaris, y al final se bailará “borobila” entre todos y todas. No podemos olvidar que se hará un almuerzo gracias a las familias de sexto curos de Educación Primaria al finalizar en la plaza. ¿Nos visitarán los intxixus y las sorgiñas? Animaos a participar, coged el disfraz de saco y el domingo a la karroxa. Empezaremos a las 10:30.

## OIARTZUNGO IHOTE TALDIAREN OHARRA

Badatoz Intxixuak eta Sorginak herrira! Otsailaren 22, 23 eta 24an asteburu osoko festa ospatuko dugu, eta guztion elkarlana behar dugu asteburua ahalik eta hoberen joan dadin. Ostiraleko eta igandeko ekitaldiak ez dira hasiko segurtasun neurriak bermatzen direla ziurtatu arte. Beraz, festa guztion gozagarri izan dadin, antolatzaileek emandako jarraibideak eta oharrak errespetatzea eskatzen dizuegu.

Eskerrik asko eta gozatu festaz! Oiartzungo Ihote Taldia

## JARDUN JARRAIA

Lerro hauetatik gogorarazten dizuegu, datorren otsailak 22an, ostiralean, Ihoteen egunean, jardun jarraiko jarduna egiten dugula, hau da, goizez bakarrik. Honela, etxean bazkaltzen duten ikasleek 13:00etan bukatuko dute jarduna, eta jantokikoek berriz, 15:00etan.

## ZORRIAK

Eskolan transmititzen dira ikasleak elkarrekin daudelako. Jakina da, zorriak edukiz gero zein den jarraitu beharreko tratamendua. Guraso batzuen aldetik kexa azaldu da. Alegia, beren seme-alabei tratamenduak egin arren, behin eta berriro azaltzen direlako. Askotan aztertu dugun gaia da eta eskolak tratamendua egiteko aholkua eman besterik ezin du egin. Mesedez ongi begiratu zuen seme-alaben buruak zorriak desager daitezen.

## ABARAXKA

Oiartzungo Abaraxka ludotekak, datorren otsailak 16an, Herri Musikaren Txokoan, erraldoiekin dantzatzen ikasteko tailerra antolatu dute. Arratsaldeko 16:30etan hain zuzen ere.

## GURASO ELKARTEA

Datorren otsailak 20ean, asteazkena, Guraso Elkartea bilera deialdi egiten du, arratsaldeko 16:45etan eskolako lehenengo solairuan, irakasle gelan hain zuzen ere.

Informazio gehiago: www.elizaldekogurasoelkartea.blogspot.com.es eta www. elizalde.eus

## AVISO DEL GRUPO DE IHOTES

Las brujas y y los intxixus vienen al pueblo. El 22, 23 y 24 de febrero celebraremos una gran fiesta durante todo el fin de semana y necesitamos el trabajo de todos y todas para que todo vaya sobre ruedas. Las celebraciones del viernes y domingo no empezarán hasta que se cumplan todas las medidas de seguridad. Por consiguiente, para que la fiesta sea del disfrute de todos y todas, es necesario seguir las normas de los organizadores y respetar sus indicaciones.

Gracias y disfrutad de las fiestas

## JARDUN JARRAIA

Desde estas líneas, queremos recordar que el próximo día 22, viernes, el día de los Ihotes, tendremos jornada continua, es decir, solo por la mañana. Así, el alumnado que come en casa terminará su jornada a las 13:00 horas, mientras que el alumnado del comedor, terminará su jornada a las 15:00 horas.

## PIOJOS



Se suelen transmitir en la escuela, debido a que los niños y niñas están juntos. El protocolo que deben seguir los padres y las madres es conocido. Algunos padres y madres han mostrado su hartazgo en Dirección, ya que, aunque siguen el tratamiento, siguen apareciendo. Es un tema que hemos tratado en profundidad en la escuela y solo podemos aconsejar que se siga el tratamiento. Por favor, mirad bien las cabezas de vuestros hijos e hijas para acabar con los piojos con la mayor celeridad posible

## ABARAXKA

La ludoteca de Oiartzun, Abaraxka, ha organizado un curso para aprender a bailar con gigantes. Será a las 16:30 de la tarde en el txoko de la música, en Ergoien.

## ASOCIACIÓN DE MADRES Y PADRES

El próximo 20 de febrero, miércoles, a las 16:45 horas, La Asociación de Madres y Padres ha convocado una reunión en la sala de profesores/as.

Más información en: www.elizalde.eus y www.elizaldekogurasoelkartea.blogspot.com.es